


Iñaki Cerrajería  
Basauri 1994

Fernando Illana  
Oroimenaren mugaldean

Mitoaren ezabaketaren mitoak -Carchiak dioenez- modernitatea garatzen du mito gisa, eta egun oskorri aldean ez dugu jakiterik bigarren munduko gerratearen hondamena ezkerotik luzatutakoari jarraitzen diona argi jeinu batean egunsentia aurkezten duen adierazpen kritiko eta errepikatua ote den, edo aldiz, gauak harrapatutako gehiegizko lehen argi ugari horren epilogo agoniatsu eta burugabekoa dugun. Argitarte honetan, itzalik, balorerik, objekturik ez duen oroimenezko espazio batetan nahastea, zalantza, galtzea, kaltea eta ezintasuna, desenkantua eta bakartasuna argizatzen dituen ote den.



Señuelo 24 piezas óleo y resina sintética / lienzo 45 x 23 cm. (c.u.) 1993

Beranduegi baino lehen, edozein lan edo asmori begira, oroimenak gogoratzen duela gogoratu egiten du desesperatuki guregan lotzen da mugarik gabeko orainaldiaren birtualitatea gu geu eta bera ere ez nahastu asmoz. Iraupenezko oroimena, eta funtziorik nagusia ahanzturaren etengabeko erasoaldiei sendo aurre egiten dizkieten horroreen konparaketa azkar, seguru eta ordenatua delarik. Argiztapen ikarati, xumen eta beldurti honen pean, egungo praktika kreatiborik gehienek bere estura gaineztatuentzako gordelekua haragiaren



Señuelo óleo/resinas sintéticas/lienzo 132 x 166 cm.

taupadan aurkitzen dute. Ez ote gaitu honetara bideratzen hainbesteko gorpu zatikatuen ugalketak, horrenbesteko genialitate eta barnekotasun espirtualak?, eta beste zentzu bateta, argizko ahulezei hau ez ote da estiloaren desegokitasunaren -Sondheimek esan bezala, arte lanaren hausnarketa eta interpretazioaren oinarri gisa-ondorioa?

Urrunean, ahanzturaren zurrumurru gordeetan Cerrajeriaren pintura batzuk dira, bertan argizutako gizakiak aktibitate betezko pintura azkar, mehe eta argitsuen hondo gainean erretraturik ageri dira. 1985eko margo batetan, belarra-mozteko-tresna baten luzapena dugun gizon batek gidari duen belar gainean lerro zuzen bat mozten du. Berta, gizona tresnaren luzapena da eta

aisia produkzioaren ondorena. Subjektua tresna ostean ezkutatzuz, taupa egiten duen haragiak, errealak, birtualitatea galdu eta horrela logoak gizona ordenazkatuko du. Garai honetan, Cerrajeriak, indikadoreen arauera, errealitatean izan ez diren begi zeinuen arauera lan egiten du: Gortvachev, Arafat, Reagan, Castro, e.a., ez dira indibidualak, markadoreak baizik -Regis Dabrayk idazten duenez-, indibiduo hauen sinbolo gisako giza taldeen ordez kapen adierzibideak; hauei aurrez begiratzeko eta, are gutxiago, zehaztasunez aztertze beharrik ez dagoelarik (1). Puntu honetan, interesgarria da Isabel II Kanalean Cerrajeriak aukeztutako lana gogora ekartzea, labelak irudia ordezkatuz, bere kontzeptuzko planteamenduek begirada metonimikoa arnastu egiten bait dute. Goiztiriko oroimen honekiko berandu zein hurbil ditu Trayecto Galería (1990) izenezkoan erakutsitako lanek, espiral mugmendua dute adierazbide nagusi, honi, akzio eta erreakzio printzipiotik eratorritako gora-behera historikoen fluxu eta birfluxua zuzendu ahala, beste hainbestekoa zein kontrakoa dagoz kiolarik. Orden mota baten sortze eskema da, estabilitateak eta bakeak non orden aldaezinak kontrolaren eraginkortasuna bermatzen duten, etorkizuneko ongizate ugariaren promesa egiaztatu eta homologatzearekin bat.

Bergsonentzat, joan-etorriaren oroimenak aberastutako pendulozko mugimenduak espirala du bere adierazbiderik aproposena (2). Lehen eta orainaren arteko ez berdintasunaren adierazbideak espiralezko abesastasunean, ideal orenen egi biribila ikustarazten du bere diamentrorik handienean. Cerrajeraren gogoarengandik lotuago dugu bihurgunearen lekualdatzearen ondorioz irudi geometriko gisako espiral ideia, eta berori bira bakaoitzean gordetako oroimenak ardatzetik urruntzen du progresiboki eta, bere muga gaindituta, erreferentziarik gabe, ezin gaindi dezake faktore dinamiko bakarra gauzatzearen tentazioa.

Oraingo honeta, Iñaki Cerrajerak partzialki aurkezturiko bere azken lanek, oroimena oinarri bilakatu izanaren baieztapenari zor diote goiztiriko orainaldiaren barneko desbideraketa beste forma bat, eta bere abiapuntuko hausnarketak Brochekin bat datoz zera dioenean: balore baten faltak, zantzugabeko konbentzioa bilakatzen du errealitatea.

Argi zirkunstantzial honen pean, Cerrajerak korrante burtzoragarritik ihes egin eta hertzea, egoera gisa, zirkunstantziaren eta geure batasun puntu gisa berreskuratzen du: anitza eta deberdina orden jakintsu batetan hazten den lekua, kanaberadi eta baratxuria, galapagoa eta ur-sagua bilduz, bertatik kenrrontearen zurrumurru sakona soma daitekeelarik. Besterik, Kant-en abots sakona eskutatzerik ez du karrantone honek: behar izana duzulako behar izana duzu.

- (1) Vie et mort de l' image. Regis Debray. Gallimard, 1992
- (2) El péndulo y la espiral. Ramón Xirau, México, 1959



Señuelo óleo/resinas sintéticas/lienzo 132 x 166 cm.